



Foto Antxon Iturriza

## NIK... MENDIA ETA ZUK...?

Mendian daukat arnasa  
aldapa ta ordekea  
mendian daukat argia  
mendian daukat pakea  
ez da neretzat nekea

Goizean goiz jeiki gara  
eguna dator atzetik  
gora goaz gizartetik  
hots eta zikin artetik

Mendia baita laguna  
orain dena dago itzal  
bi hegoak hara zabal  
mendian ezin bada gal

Lasai joateko mendira  
aurrez atera kontuak  
ibai-txorien kantuak  
indarrak ondo hartuak

Jeikitzen bazara zu goiz  
goizean goiz egunsenti  
nahiz gertu nahiz urruti  
MENDIA MENDI DA BETI.

Zergatik zoaz mendira?  
usaina du berezia  
alferrik da malizia  
GORA MENDIKO BIZIA

Mendietako txangotzan  
hartu dut zure indarra  
eta bazter sasi-larra  
GORA AIDE MENDITARRA

Gogozko zait ta atsegin  
negua nahiz udaberri  
beheran milaka herri  
zahar dena noiznahi berri

Jexux Aizpurua B.

## ZATOZ AUÑAMENDIRA

Egun bat, beste bat  
pauso bat, beste bat  
leku bat, beste bat  
mendi bat, beste bat  
GAILURRA

Bide estuetatik  
aldapa batetik  
sasien artetik  
leku laihotzetik  
MENDIA

Zuhaitz adarrean  
mendi magalean  
iturri gainean  
baso oihanean  
ELURRA

Haizea indarrez  
mendia nigarrez  
laster zaigu farrez  
gu berriz ezer ez  
MENDIA...

Berdin da negua  
berdin da gogua  
zai dago barrua  
izarren orrua  
GORA!!!

Loreak zaidari  
mendien gidari  
errekak kantari  
jaiotzen da ari  
UDABERRIA

Guztia estaltzen  
margoak berdintzen  
umeak alaitzen  
ikasi ibiltzen  
ELURRA

Jexux Aizpurua B.